

Abaituetxebarria (-a) etxebizitza

Aldakerak:

Ahozkoa: Abaitutxébarriaxe / Inés Pótolena



43° 10' 56"

2° 34' 27"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Abaitua inguruko beste baserri-etxeetako bat dugu honako hau. Izenak, hots, *Abaitua nuevo* (1825, PE/1825), erakusten duen moduan, garai batean etxeen artean berriena zen, eta seguruenik XIX. mende hasieran eraiki zuten. Lehen aipu horretatik aurrera, dokumentazioan beti agertzen zaigu *Abaituako etxebarría* moduan: *Abaitua-echevarria* (1859, BUA, Nmcr), *Abaitua-Echevarria* (1878, DJE, 4/ 86. or.) eta *Abaituaechevarria* (1967, BUA, CE), XX. mendean. Auzotarren artean, *Abaitutxébarriaxe* moduan ezagutzen da, hori baita ahozko era. Inés Pótolena forma ere erabiltzen da nonbait.

toponimia

Bizkaian ohikoa da etxe izenak oso luzeak izatea, luzeenak Euskal Herrian, lehenengo osagaia auzoaren izena izaten delako. Sarritan auzo izena hasieran etxe baten izena zen. Etxe bakarra egon zen eta bigarren bat eraikitzean zerbait bereizgarri gehitu zioten berriari eta gehienetan zaharrari. Denboraren poderioz auzoa sortu zen eta etxe guztiek zuten hasiera bera dute izenean. Hori bai, ahoz gehienetan bigarren zatia besterik ez da erabiltzen. Kasu honetan Abaitua auzoko etxe berria da, izenak argi erakusten duen bezala.

“... la casería rústica titulada *Abaitua Echevarria*,... situada en la barriada de San Lorenzo jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con inclusión de los terrenos de los cuatro costados que cortan a plomo las sacas del tejado, treinta y ocho estados cuadrados superficiales de planta solar, y la que se compone de sus correspondientes cuadras y habitaciones...”
DJE 1/181 or. (1865)

“...consta de tres viviendas, una de ellas es de piso llano, dos pisos altos o principales y desban, las otras dos de piso llano, alto y desban, ocupa una planta solar de trescientos veinte y un metros con inclusión de su plazuelita de enfrente y dell costado sudeste...”
DJE 4/86 or. (1878)

XIX. mendeko baserri etxea, goranzko tendentzia jarraituz jaso. Izan ere, hiru solairu eta ganbara ditu eta fatxada nagusiko baoak hiru ardatzetan antolatuta dauzka eta nabarmenena erdikoa da. Horregatik, atearen gainean balkoia dauka, harrizko mentsula moduko bat dena, burdinazko karelaekin. Eta goragoko solairuetan, leihoak, aldekoak bezalakoak. Ganbarakoak txikiagoak dira. Eraikitzeke harlangaitza erabili zuten, jatorriz estalita eta margotuta egongo zena, eta kantaletan eta bao guztietan, dinteldunak, harlandu bikaina. Ateburuan etxearen izenarekin inskripzioa dago. Teilatua bi isuritakoa da.